



**Prensa oharra**

**Elikadura osasungarriaren promozioa haurtzaroan**

**EROSKI FUNDAZIOAK ETA UNILEVER-EK 2.  
IMAGINE FOOD-EKO SARIAK BANATU DITUZTE**

- **Espainia osoko 6 eta 12 urte bitarteko 900 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute marrazki lehiaketa hau egin den bigarren aldian.**
- **Arrasateko, Sevillako eta Toledoko hiru ikaslek irabazi dute, hurrenez hurren, sariaren hiru kategorietan**
- **Peio Gartzia sukaldaria arduratu da aurten ere marrazkiak egiazko bihurtzeaz eta plater osasungarriak prestatzeaz; liburu batean bildu dituzte errezeta guztiak**
- **EROSKI Fundazioaren "Hazteko Energia" heziketa programaren barnean antolatu dute sariketa hau; aurten, laugarren urtea du, eta parte hartzea 75.000 ikasletara iritsi da**

**Elorrio, 2016ko apirilaren 18a.-** [EROSKI Fundazioak](#) banatu ditu bigarren urtez antolatu den [Imagine Foodeko](#) sariak, 6 eta 12 urte bitarteko ikasleentzat egiten den marrazki lehiaketakoak. Hauxe da proposamenaren asmoa: ikasleak, irakasleak eta gurasoak kontzientziazteak elikatzeak osasunean duen garrantziaz eta erakustea sano jatea goxoa eta dibertigarria izan daitekeela. Aurten, [Unileverren](#) kolaborazioa izan du lehiaketak.

Lehen Hezkuntzako lehen zikloko (1. eta 2. mailak) ikasleen kategorian, Tirso de Molina ikastetxeko Lucia Olveirak irabazi du, Argesen (Toledo), *Verdufish maitekorra* proposamenarekin. Lehen Hezkuntzako bigarren ziklokoetan (3. eta 4. mailak) Arrasatekoa (Gipuzkoa) izan da irabazlea: Arizmendi Ikastolako Irati Unamuno, *Unibertsoa* errezetarekin. Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklokoetan (5. eta 6. mailak), berriz, Sevillako Alfares ikastetxeko Rafael Carracedok irabazi du, *Ezpatariak* proposamenarekin. Hiru irabazleei bizikleta bana eman diete, eta haien ikastetxeei 2.000 euro, eraikinetan bizimodu osasungarriagoa egiteko balio duten hobekuntzak egiteko.

*"Imagine Foodek lehen aldian izan zuen harrera ona dela eta, animoz hartu genuen berriz antolatzearena, eta emaitza zoragarria izan da, 908 marrazki (lehen urtean 550 izan ziren) eta lehiaketaren webguneak trafiko izugarria: 90.000 ikustalditik gora eta 65.000 erabiltzaile bakar baino gehiago bi aldietan. EROSKI Fundazioarentzat, haurrei elikadura osasungarriaren heziketa ematea*

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)



ESCUELA DE  
ALIMENTACIÓN



*lehenasunezko helburua da, eta uste dugu horretarako modurik onena jarduera ludikoen bidez ematea dela. Esaterako, lehiaketa honen bidez. Gainera, plataforma eraginkorra bihurtzen ari da era orekatuan jaten ikasteko", esan du Alejandro Martinez Berriochoak, EROSKI Fundazioko zuzendariak.*

Hiru marrazki onenak aukeratzeko, honako honi erreparatu diote: menu orekatu baterako originala, estetikoa eta egokia izateari. Lehiaketaren finaleko marrazkiak paperetik Peio Gartziaren sukaldaria joan dira, eta bera arduratu da aurten ere plater goxo eta osasungarri horiek errealitate bihurtzeaz. Gainera, finaleko hogeita hamar errezetak liburu batean bildu dira; liburu horretan, errezetak ez ezik marrazki originalak datoz, eta, gainera, plater bakoitzaren semaforo nutrizionala.

Epaimahaian, hor izan dira EROSKIren Elikadura Eskolako ordezkariak eta Basque Culinary Centerreko sukaldari profesionalak, eta haiak aukeratu dituzte finalerako 30 lehiakideak. Ondoren, webgunean erregistratu diren parte-hartzaile gazteek botoa eman diete finalean sartu diren marrazkietatik hamar gogokori. Gero, epaimahaikideek hiru marrazki bereizi dituzte emaitzarik onenak lortu dituzten marrazkien artean.

### **"Hazteko Energia" Heziketa Programaren laugarren urtea**

Lehiaketa hori EROSKI Fundazioak laugarren urtez martxan jarri duen honako programa honen parte da: *Hazteko Energia, Elikadura eta Ohitura Osasungarriei buruzko Heziketa Programa*. Aurtengo laugarren aldi honetan (2015-2016ko ikasturtea), programa partaidetza kopurua handitzen ari da, eta, dagoeneko, Espainia osoko 900 ikastetxetako 75.000 ikasletik gora ditu. Laualdiak kontuan hartuta, Espainiako Lehen Hezkuntzako ikastetxeen %15ek parte hartu dute *Hazteko Energia* programan.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)